

Zarautzen, 2010.eko abenduaren 17an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Arejita, Adolfo
Azkarate, Miren

Coyos, Jean-Baptiste
Charritton, Pierre,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel

Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Erramun Osa, idazkariordea
Jose Mari Iriondo, Ohorezko euskaltzaina eta,

Mikel Gorrotxategi,
Patxi Galé,
Alfontso Mujika,
Pello Esnal
euskaltzain urgazleak
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Sagrario Alemanek, ahala Andres Iñigori; Aurelia Arkotxak, ahala Miren Lourdes Oñederrari edo Txomin Peilleni; Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik, ahala Andres Iñigori; Xarles Videgainek, ahala Jean Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10,07etan hasi da Frantziskotarren Zarauzko komentuko liburutegian ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak Jean-Baptiste Coyos, Zuberoako euskaltzain berria, agurtu du, ongi etorria emanaz. Ondoren, batzarrari hasiera eman dio.

1. Aurreko akta onartzea. Azaroko batzarraren akta dela eta, J.L. Lizun-

diak ohar batzuk helarazi ditu ahoz, eta, idazkariak horiek kontuan hartu ditu. Horrela, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hasi aurrekoak

2.1. Eguneko programa. Akademia gaietan sartu baino lehen, A. Urrutiak Osoko Batzar arrunta goizeko 10:00etatik **12ak** arte izango dela esan du. Ondoren, 12etan Ageriko Bilkura egingo da: *Agirre Asteasukoaren erakusaldiak* liburuaren aurkezpena. Miren Arantzazu Ozaeta andreak Agirre Asteasukoari buruz egindako tesiaren egilea. *Frai Baertel sermolari famatua (Durango 1850 – Zarautz 1922)* J.L.Lizundiaren hitzaldia, eta A. Arejitaren *Frantziskotarren oratoria: Zarauzko mi-siolari-kolegioaren papera*.

3. Onomastika

3.1. «Euskal Herriko ibaien izenak» Ebrora doazen euskal ibaiak. 5. zerrenda onartzea.

A. Iñigok aurkeztu du proposamena eta hitza P. Galéri eman dio.

Honek toponimo batzuk jasotzean izandako zalantzak azaldu ditu, bai forma aldetik eta bai azentuazio aldetik ere, adibidez: *Egurgi/Egurgio, Gurpegi-, Sorogain-ko erreka, La Foz, Cerrécano, Egúrzano, Orradre, (la) Onsella*. Oharrak urtarrilaren 15erako, igorri beharko dira Euskaltzaindira.

P. Xarrittonek ohar batzuk egin ditu toponimo horien inguruan, Kaputxinoek hartzen zituzten jaioterri-izen batzuk direla eta, hala nola Adoain, Bonifazio de Ataun, Aita Etxandi... horiek oro kontuan hartu beharko lirakeela uste du. M. Azkaratek: bada aditz bat *-gi/-gio* bukaeren alternantziak ohar bat egin du, zenbait lekutako aditz batzuetan horrela ari dira eta: *etzangu, etzangi*, adibidez. Tx. Peillenek Zuberoan *Egurgia* forma entzuten dela azaldu du.

J. Harischelharrek beste ohar bat egin du, hidronimoa izendatzen duen toponimoari atzean *-ko* bukaera duten izenez. Batzuek hola kontserbatzen dute iparraldean ere. J.L. Lizundiak, hitza harturik, *Onsella* hainbeste aldiz agertzen dela azaldu du, *Arciprestazgo Mayor de Onsella* gisa, artikulurik gabe. A. Iñigok esan du Soragaingo euskaldun batzuk bizi direla, eta, horiei galdetuz, bukaeren arazo hori berriz ikusiko dela datu gehiagorekin.

P. Galék argitu du *Onsella, Val* bat denez, Pirinioko erdaretan femeninotzat jotzen dela. Galderak izan dira, *-gi/-gio* horiek ez ote diren Ipar/Hego banaketaren kontuak. Iñaki Caminori kontsultatzea erabaki da, berori baita *Comisión Especializada de Nombres Geográficos* deritzon Batzordean, Euskaltzaindiaren ordezkari.

3.2. Exonomastika. «Ekialde hurbileko izenak». Turkia-Azerbaijan. Zerrenda onartzea

Oharrik ez, eta, beraz, aurkeztu zen bezala onartu da.

3.2.1. Georgiako exonimoak. Zerrenda aurkeztea

J.L. Lizundiak proposamena aurkeztu eta A. Mujikari hitza pasa dio. Natela Sturua georgiar euskaltzainak eta Vahan Sarkizián armeniarrek proposamenari egindako erantzun-oharrak aipatu dira, etsenplu batzuen egokitasunaz. Kaukasoko izen propioak direla eta, J.L. Lizundiak oharrarazi du berez ez direla toponimo asko, baina, halere, politika-gorabeherak direla medio, izen horietako batzuek maiztasun handia izaten dutela: Mikoian edo Xevarnadze, adibidez.

I. Sarasolak, K. Mitxelenaren behialako oharra aipatuz, armeniar jatorriko -ián bukaera duten deiturek azentua azken silaban daramatela gogorarazi du, eta beraz, euskaltzain ohorezko horrena Sarkizián esan behar dela. Oharra eskertu zaio eta halaxe egiten saiatuko da Euskaltzaindia.

A. Mujikak: Georgiako alfabetorako transkribatze-sistema nazionala, pixka bat egokitua, proposatzen dela nabarmendu du, x eta tx grafemetan batez ere, zirilikoa egin zen bezala. Oharrak urtarrilaren 15erako, igorri beharko dira Euskaltzaindira.

4. Auspoa. Digitalizazioa. Aurkezpena

P. Esnal eta J. M. Iriondo eta A. Sagarna izan dira aurkezleak.

A. Sagarnak egin du lehen aurkezpena, Auspoa bilduman argitaratu den guztia-
ren (319 liburu inguru) digitalizazioa, hain zuzen. Iker sailburuak azaldu duenez, Euskaltzaindiak Auspoa liburutegiko eduki guztiak eskuratuak ditu, eta programa informatikoari esker, erabiltzaileak, behingoan Auspoako liburu guztien azalak pantailan ikus ditzake. Hor klikatuz gero, obra bakoitzaren eduki osoa lor daiteke. Okerrak eta akatsak zuzentzeko modua ere azaldu du, bai eta bilaketa sistema ere.

P. Xarrittonek iruzkin batzuk egin ditu A. Zavalaren eskuineko ideologia karlistata salatuz.

I. Sarasola A. Zavalaren alde mintzatu da, ikastetxean irakasle zuen eta. Haren lan bikaina azpimarratu du, fidagarritasun handikoa. Gauza bera azpimarratu du A. Sagarnak. A. Arejitak ere antzera hitz egin du, A. Zavalaren lana goraiatuz: euskaraz pentsatzen zuen jendearen emaitzen lekukotasunak eman nahi zituen Zavalak.

E. Larrek ere Zavalaren lana eta herri-euskaren aldeko merezimenduak gorai-patu ditu, eta ez ziola behin ere politikaz mintzatzen entzun azaldu du.

M. Zalbidetik zorionak eman dizkie taldeko prestatzaileei, hor egiazko altxorra baitago, XIX-XX mendeetako lekukotasun fidagarriekin.

J. M. Iriondok argitu du aita Zavalari ez ziola behin ere politikaz mintzatzen entzun, eta, beraren ustez, ez zela inoiz karlista amorratua izan.

Euskaltzainburuak gaineratu du nork bere iritzia eta ideologia izateko eskubidea duela, baina Euskaltzaindia ez dela kontu horiez eztabaidatzeko leku aproposa.

P. Esnalek egindako digitalizazio lanaren ezaugarri batzuk azaldu ditu. Proba bat dela gogorarazi du, eta, beraz, euskaltzainen aholku eta iradokizunen zain dagoela. Helburuak: ea lagin horretatik zer ateratzen den. Metodologia landu beharra dakusa. Hiztegia egiteko orduan 20 obra erabili dira ikertzeko. **Jaso** hitzaren kasua erakutsi du etsenplutzat (esangura, adierak, adibideak). Agerrera amaitu duenean, Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie.

Ibon Sarasolak erabiliriko metodologia dela eta, adierak aldezturik sailkatu ez baina maiztasunaren araberrako sailkapena egitea egokiagoa izango litzatekeela uste du.

P. Zabaletak gaurko grafia batuan *hauspoa* idazten den arren, bilduma horren izena, euskararen batasuna baino lehenagokoa denez, bere horretan uztea eskatu du, hots, Auspoa, h-rik gabe.

J. Lakarrak P. Esnalek bere erakustaldian, Auspoa-ko lexiko aberastasuna nabarmentzeko, Maria Molinerren hiztegia, hain zehatz-mehatz, eredu-jarraipidez hartu izanari bitxia iritzi dio, hitz bakoitzaren esangurak eta adierak, berez, horiek benetan erabiltzen diren hizkuntzaren mugetan eta testuinguruan neurtu behar direlako, eta ez beste edozein hizkuntza batekin konparatuz.

5. Eskuarrekoak

5.1. Anaitasunaren digitalizazioaren aurkezpena. J. M. Torrealdai *Anaitasuna* aldizkariarekin egindako digitalizazio lana jada bukatua da. Datorren abenduaren 21ean aurkeztuko da Bilboko udaletxean, goizeko 11etan. Euskaltzain guztiak inbitaturik daude.

5.2. Diruzaintza. Diru-kontua aurkeztu da: oharrik ez. J. L. Lizundiak esan du Eusko Jaurlaritzatik jaso diren laguntzarekin arnasa hartu duela Euskaltzaindiak.

A. Urrutiak azaldu duenez, gestioak egiten ari dira 0 defizitaz amaitzeko. Halere, horretarako, murrizketak egin beharko dira. Une honetan Aurrezki Kutxen laguntzen zain dago Akademia.

5.3. Xabier Leteren hilberri-txostena. X. Lete euskaltzainaren heriotza dela eta, horren hilberri-txostena urtarrileko batzarrean egitea eta berori J. A. Irigarairi proposatzea onartu da.

5.4. Patxi Uribarrenen eskaria. Joan den hilean datorren urterako aurkeztu zen batzar-programaren proposamena dela eta, P. Uribarren euskaltzainak eskari bat egin du, 2011an egiteko diren osoko batzarren artean bat Araban antolatzeko. Horrelaxe onartu da.

5.5. Manuel Lekuona saria Jose Antonio Arana-Martijari. Eusko Ikaskuntzak urtero antolatzen duen Manuel Lekuona saria, aurten Jose Antonio Arana-Martija euskaltzainari eman zaiola jakinarazi da. Euskaltzaindiak bere zorionak bidaliko dizkio.

5.6. Jose Luis Lizundia Abadiñon saritua. Abadiñoko Udalak bertako herritar nabarmenek kultura eta kirol arloan eginiko lanak goraiatzeko, urtero ematen dituen sarien artean, aurten J. L. Lizundia euskaltzainari euskal hizkuntza eta kulturaren aldeko saria eskainiko zaiola jakinarazi da. Euskaltzaindiak zorionak eman dizkio.

5.7. Jose Manuel Blecua. RAEko buru berria. Real Academia Españolan Burutza kargurako izandako azken hauteskundeetan Jose Manuel Blecua jauna izan dela hautatua jakinarazi da. Euskaltzaindiak zorionak helaraziko dizkio.

5.8. Juan Jose Arginzoniz Arriola jaunaren dohaintza. Aurtengo azaroaren 29an Bizkaiko Berriz herrian J. J. Arginzoniz Arriola jaunak Euskaltzaindiari RAEko hiztegiaren dohaintza egin zion (2. edizioa). Eskuratzeko ekitaldian, Euskaltzaindiaren ordezkari gisa, J. L. Lizundia diruzaina izan zen, Pruden Gartzia bibliotekariarekin batera. Euskaltzaindiak esker oneko gutuna helarazi dio emaileri.

5.9. Erlea aldizkariaren Baionako aurkezpenaz. Iparraldeko euskaltzain batzuk kexu izan dira *Erlea* literatur aldizkaria Baionan aurkezteko gonbita berandu heldu zaielako. Zuzendaritzak sentitzen duela erantzun die, baina hori ez zela Euskaltzaindiaren errua argitu du, posta zerbitzuaren atzerapenagatik gertatu baita, agian Gabonen inguruko mezu-metaketak direla eta, izandako problemengatik.

5.10. Idazkariorde berriaren aurkezpena. Erramun Osa jauna, azaroko batzarrean jakinarazi zenez, aurreko idazkariordearen lekua betetzeko hautatu dena, Euskaltzaindiaren batzarrean izan da. Halaxe aurkeztu zaie bilduriko euskaltzainei eta ongi etorria eman zaio. Urtarrilaren lehen egunetan hasiko da lanean.

Euskaltzaindiaren hurrengo biltzarra, 2011ko urtarrilaren 28an (Donostian) izango dela iragarri da.

Batzarra 12etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Zarautzen, 2010.eko abenduaren 17an

Zarauzko Frantziskotarren komentuarien
400. urteurrenean

Ageriko bilkura

Abenduaren 17an, eguerdiko 12:00etatik aurrera, Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak Zarautzen, bertako Frantziskotarren 400. urteurrena dela eta.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Pierre Charriton, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdei, Patxi Uribarren, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Joseba Intxausti eta Joxe Mari Iriondo

Euskaltzain urgazleak: Pello Esnal

Kudeatzailea: Joseba Zabaleta

Batzordekideak: Erramun Osa Sustapen batzordeko idazkaria

Euskaltzaindiko langileak: Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Euskaltzainburuak ekitaldiaren arrazoia eta Ageriko bilkuraren nondik-norakoak azaldu ditu. Segidan, hitza eskaini dio Frantziskotarren komentuko ordezkariari. Honen, eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari ekitaldia antolatzeagatik eta Frantziskotarrek euskararen indarberritzean egin duten ekarpena gogoan edukitzeagatik.

Honen ondoren, Aguirre Asteasukoaren erakusaldiak: Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan liburuaren aurkezpena egin da. Liburu honek Agirre Asteasukoari buruz Arantza Ozaeta andreak egindako tesia du oinarritzat.

Agirre Asteasukoaren eracusaldia: Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan liburua Euskaltzaindiak argitaratzen duen «Iker» bildumaren 24. zenbakia da eta Arantza Ozaetak idatzi du. Mondragon Unibertsitatearen eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker argitaratu da.

Ozaetaren doktorego tesiaren bertsioa da, eta Luis Mari Larringan Aranzabalen zuzendaritzapean egin zuen, EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. 2009ko otsailean irakurri zuen.

Egileak dioen bezala, «liburuak sermoia zer den azaltzea du xede, beti ere, sermoia hizkuntzazko gertaera eta objektu diskurtsibo gida kontsideraturik».

Ozaetak bost kapitulu (edo modulu) egin ditu sermoien azterketa egiteko. Lehen kapituluan, koordinada biografiko eta espazial-kronologiko oinarritzko batzuk ematen ditu. Kapitulu hau sermoien testuinguru sozio-historikoa hobeto ezagutzeko dago eginik.

Bigarren kapituluan sermoien testu-egiturari dagokio. Hirugarrenean, ilokuzio-esanahia argitu da, hizketa-egintzak analizatuz. Laugarren moduluan sermoien analisi enuntziatibo-diskurtsiboari ekin zaio, beti ere alderdi sozio-diskurtsiboen bila. Modulu honetan pertsona izen-ordainak eta berbaldi ekarria (discours rapporté, discurso referido) aztertu dira. Azken moduluan, bosgarrenean, sermoien eredu erretorikoaren analisisia egin da.

Euskaltzainburuak hitza eman dio Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoari. Honek, Frantziskotarren Zarauzko komentua 400. urteurrena dela eta, XIX. mende bukaerako eta XX.aren hasierako euskal predikari entzutetsu bati buruz, Frai Bäertel sermoilariari buruz jardun du, «Fraibäertel sermolari famatua (Durango, 1850 – Zarautz, 1922)» izenburua daraman hitzaldia emanez. Besteak beste, Zarauzko komentuan egon zen fraide honen jatorria, aita egungo Txekiako Ipar Moraviakoa baina germanofonoa, ama durangarra; milaka sermoi euskaraz Euskal Herrian zehar egindakoa, milaka asko entzuleren aurrean, batzuk sonatuak eta inprimatuak, hala nola Durangoko (1886) eta Zumaiaiko (1900) Euskal Jaietan euskararen alde egindakoak; garaiko karlista eta euskaltzale sutsua; Mogelen *Peru Abarkaren* argitaratzearen eragile eta beste zenbait ekarpen izan ditu aipagai J. L. Lizundiak bere mintzaldian.

Lizundiaren ostean Adolfo Arejita euskaltzain osoak hartu du hitza, «Frantziskotarren oratoria: Zarauzko Misiolari-kolegioaren papera» izenburua daraman hitzaldia emanez. A. Arejitak, XVIII-XIX mende bitartean, Zarauzko Misiolarien

Kolegioa indarrean izan zen denboran, bertako fraide predikariek euskarari eta euskal literaturari egin zieten ekarriaz mintzatu da. Aita Galdos oñatiarra aintzindari zela, sermoigintzaren bidez euskaraz garatu zuten erretorika generoko literatura aipatu du batetik, eta euskararen gramatika eta lexikografiari P. A. Añibarrok, J. M. Zabalak eta beste batzuek egin zizkieten emaitzez, bestetik.

Eta besterik ez dela, euskaltzainburuaren agur eta esker oneko hitzekin amaitutzat eman da ekitaldia 13:30ean.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria